

Basoko jaunak

---

Hirugarren Coca-cola eta nire maskuria lehertzeaz dago. Alkohola utzi nuenetik, orain dela zortzi hilabete, ez dut topatu tajuzko ordezkorik. Momentuz Cocacolakin, gaztetan txirrisklasek (vodka gehi cocacola gehi limoi zuku pila bat) ematen zidaten zirrara lortu nahiean nabil, baina oraingoz arrakasta eskasakin.

Gaztetan diot ze dagoeneko berrogei urte pasatxo dauzkat. Dena den, ez dirudi bizitza gehiegi aldatu zaidanik, orduan bezala hementxe bati nago, bi kotxeren artean kokoriko makurtuta pixa egin nahiean Dimako jaixetan. Badirudi bizitzan ez dudala aurrera asko egin azkenengo lustroetan, hemen jarraitzen dut kale estu honetan verbena berdinean. Dena den, ez da garai ona filosofikoa jartzeko, ez zait txixa etorriko bestela!

Operazioak bere zailtasuna badauka, hamasei urterekin neuzkan altuera eta pixuarekin jarraitzen dudalako, 1,80 eta 80 kilo berberekin jarraitzen bait dut. Nire gorputz "lirain" honek zaildu egiten du tarte honetan izkutatzea sandalia batean ez txixa egiten saiatzen naizen bitartean. Haizea ere kontutan hartu beharra dago, agerian dauzkadan ipurdi eta aluan hegoaldeko nahiko gogor datorrela igertzen ari bait naiz.

Haizea kalean amaieran dagoen basoaren hasieratik dator, eta iluntasunari aurrez begiratzean beldurra sartu zait. Sandalia pixkat bustita baina banijoa, iluntasunetik norbait edo zerbait begira daukanaren sentazio bitxia eta ezerosoa daukat. Zutik jarri ta, nahiz eta kuleroak ere pixkat busti, banoa berriz verbenaren segurtasunera.

Agian Cocacolen burbuilak dira, baina azkenengo momentuan atzera begiratu dut eta itzal haundi bat nire txixatokian makurtu eta zeozer, animalia haundi bat edo, nik utzitako arrastoa usaintzen ari zela iruditu zait. Ilargi betea dago baina ez dit hobeto ikusten laguntzen, hobe dut nire lehengusinekin itzultzea.

Xole eta Larraitz, Larraitz eta Xole dira nire lehengusu kuttunak. Dimatik 18 urte nituenean alde egin nuen, eta orain, nire bizitzako momentu zailean, zer egin erabakitzeko aukeratu dudana tokia da. Nire lehengusuen etxea nire babesleku bihurtu da, mundutik eta jendearengandik babesten nauten paretak.

Orain dela hilabete etorri nintzen lana galdu ondoren. Hogei urte eman nituen supermerkatu batean lanean eta itxi zutenean indemnizazio polita jaso nuen, eta zereginik gabe gelditu ere. Lan hura ez zegoen nire neurrira eginda. Tira; aulkia ere txikiegiak ziren niretzako eta batzuetan sabaieko fluoreszenteek energia xurgatzen zidatenaren sentazio argia neukan. Halere, gizartean toki bat ematen zidan.

Jaio nintzenetik nire tokia bilatzen nabilela sentitzen dut. Inon enkatatuko ez banu moduan. Hasteko eta behin, adoptatua naiz, beti jakin izan dut hori. Gogoratzen dudanetik nire familian atzerritar bat bezala ikusi dut nire burua. Interkanbioko ikasle bat izango banintz bezala. Hasteko denak kaskazuriak dira, Diman “Alemana” esaten diote gure aitari, edo “Txiki” ere deitzen diote, beraz, ni beltzarana eta anti-txiki izanik, laister kontatu behar izan zidaten egia. Zortzi urterekin nire amaren altuerara hurbiltzen hasi bezain pronto. Ba zera, adoptatua naizela.

Nire Pin eta Pon familia dira denak, bai eta nire lehengusu tippi Larraitz eta Xole ere. Dena den, munduan ez dagoela niretzat egindako lekurik pentsatzen dut sarritan. Atzerritar munduan. Bizitzako puzzlean nire fitxa haundiegia da eta besteen artean sartu nahi horretan beti hartzen dut mina izkintan. Beraz, 4 hamarkada nere gain dauzkadanean oraindik ez daukat bikoterik, ez semerik, ezta lanik ere. Bizitza niretzat, berrogei urterekin, oraindik ez dela hasi sentitzea, nahiko patetikoa da, ezta? Ba gaur ez, gaur libre eta arin sentiarazten nau normalean lazarria zaidan horrek.

Dantzaldian, Gozategikoek “Emoistazu muxutxue” –ri ekin diote berriro eta aski dugu tipo hauekin, dozena bat rantxera dantzatu ditugu, kalejiretako musikaz ere ase gara, eta hau gehiegitxo da guretzat. Larraitzen eskutik Barullora sartzen gara, Dimako hiru taberna dantzagarrien zerrendan lehenengoa, kamarero guapo guapo bat daukalako. Giro egokia: argi gutxi, jende asko eta udako musika “Ay Anselma” eta, gure herrian hain ezagunak diren, horrelako beste hainbeste klasiko entzungai.

Ona naiz pistadantzan, edo behintzat gaztetan baino hobeagoa. Lotsa, denboraren orratzek eraman zuten eta gaur egun bakarrik banego bezala egiten dut dantza. Trantzean sartzen naiz. Nire gorputz haundiak isurki kutsu bat dauka eta musikak aktibatzen du nire haragiaren propietate izkutu hori. Begi itxiekin erritmoei eta tonoei ongiatorria ematen diet eta musikari lotzen natzaio. Burmuin eta giarrak frekuentzia berdinean lanean.

Bat batean, taberna guztia saltoka dagoenean Gatiburen “Eurixa daaa” dantzatzen, lenengo aldiz somatzen dut. Sena berri bat ON moduan jarri zait, eta begiak itxita gela osoaren usainak aztertzen ditut koloroeak jarraituko nituzkeen moduan, animaliek egiten duten bezala. Tabernaren eremuan giza-izerdia ez den zeozer berezia dago, eta zeozer horrek titiburuak gogortzen dizkit eta lepaldeko ileak tentetu.

Gizateriaren beroaren artean niregana zuzentzen den korrontea argi sentitzen dut. Begiak ireki eta usai-sentimen berezi hori datorren norabidean ez dut ezer arrarorik ikusten... Ala bai? Begi beteretzetik, dantzarako traba egiten duten aulkiak pilatzen diren txokoan, zeozer dagoela dirudi. Itzal haundi baten

erdian bi begik disdira egiten dute, niri begira daude eta nire gorputz traidore hau piztu egin zait harrapakari begirada ilun horren menpe.

Nire burmuina martxan jartzen da, izututa dago, nire buruak bere tokian jarraitu nahi du eta bere munizio guztiarekin erasotzen du. Tipo hori arraroa da, normalean ez dut inoiz ligatzen eta gaur ez da desberdina izango, kontuz!. Ez dakit ilargi betearen eragina edo zergatik den baina gaur nire buruaren ahotsa itota entzuten da eta nire gorputzaren erantzunak marmar horiekin bukatzen du. Nire sen berriak geroz ta altuago helarazten dizkit bere mezuak, eta nire hankatarteari argi ta altu hitzegiten dio. Bero sentitzen naiz, eta, zirrara hagineta raino heltzen zaidalarik, aluaren muskuluak estutzen ditut.

Nire lehengusuek azkenengo taberna batera aldatu nahi dute etxeratu aurretik, eta jarraitu egiten diet Barullotik at. Kalera atera bezain pronto zelatatzen nauen zera hori segundu pare batez benetan ikustea lortzen dut; itzal berri bat topatzea lortu baino lehenago. Gizon bizardun bat, hartz bat baino haundiagoa den gizon puska, eta adatsak zorbalde taraino heltzen zaizkio. Segundo batzuk geroago ezin dut bere arropari buruz ezer gogoratu baina ezin dut burutik kendu bere esku haundi horien tamaina.

Haserretzen hasita naiz gauza haundi horrekin eta nire buruarekin, ez dut izkutaketan jolasteko gogorik.

Lehengusuak deika dauzkat eta urazpitik bezala entzuten ditut, nire haserrea ur gorritan murgilduta nauka eta. Nire itsasgoratik tabernara bidaltzen ditut begiratu gabe, ez bait dut nire harrapakina begibistatik galdu nahi. Horrelako gizonkotea izateko oso arin eta isil mugitzen da.

Larraitz eta Xole tabernan desagertzera koan bere itzala dagoen zokora begiratzen dut eta tinko eusten diot begirada.

-Zer? Zer nahi duzu?- ia ohiukatu diot, eta nere ahotsaren segurtasuna arriduraz entzuten du nire burmuin begiraleak. Agian Cocacolen kafeina da, baina gaur gauean desberdin sentitzen naiz, eta beregana hurbiltzen naiz. Beragandik metro batera nagoenean bere benetako tamainaz jabetzen naiz.

Ez nago txiki eta hauskor sentitzen ohituta, eta gizongaitz hori ni baino metro erdi altuagoa da, eta bere gorputzaren indar ixilak planeta baten indar grabitatorioarekin erakartzen nau. Nire sistemak, adrenalina zurrusta bat sartzen du nire odolean eta, era berean, nire burmuinak berriz ere abisu gorriak erakusten saiatzen ari da. Nire sen berriak nire adimena ixilarazten du berriz ere asperen batekin, eta nire gorputzaren nahi izkutuak agerian uzten ditu: gorputz horrek hurbiltzeko desio pairaezina sortzen dit, beregandik urrun egoteak oinazea sortarazteraino.

Bere begiak ez dira beltzak, hasieran iruditu zaidan moduan, berde ilunak baizik, eta bere eskuak nireen bikoitza dira. Horietako esku batek, motel motel niregana hurbildu, eta nirea hartzen du. Hanka luze horiek martxan jarri eta basoko norabidean goaz, nik jarraitu besterik ezin dut egin, jarraitu eta gauean estropezu egin gabe gizaki honen atzetik joan.

Ibilian, ibilian, tipi-tapa gauean goaz ia ordubetez.

Gizon erraldoi isil batek basora narama arrastaka eskutik, eta ikaratuta sentitu beharrean, nire eskua gordetzen duenak lasaitasun eta zirrara sentiarazten nau. Bere beroa eskutik besora eta nire gorputzetik pasatzen da nire pubisaren leku berezi horretaraino, bero nagoenean aktibatu egiten den toki bereziraino.

Ingurune hau ezaguna da niretzat, Jentilzubin gaude, toki hau beti izan da berezia niretzat. Nire barruak triste edo nahastuta zeudenean, harrizko zubiaren azpian sartzen nintzen. Itzaletan, paretaren kontra estutzen nuen gorputza lasaitasuna barneratzen sentitu harte, kafesne epel gozo eta lehun bat bezala. Hemen ematen nituen orduak etxean arrotz sentitzen nintzenean, kaleak estu edo zabaia gertu nabaritzen nituenean.

Jentilzubik gaur bere magia agerian uzten du guretzat, nire erraldoiarentzat eta niretzat. Harrien zirrikituetatik argi berde bat dario eta bi errealitate desberdinen arteko muga dela dakit..

Pausua moteltzen dugu eta, poliki poliki, pausuz pausu pasatzen dugu zubiaren azpitik. Airearen konposaketa aldatzen dijoa eta ahoan kilimak dauzkat, ugari mihazkatuko banu bezala. Kilikadura nire ahotik eta sudurretik, airearen bitartez gorputz guztiara zabaltzen zait eta oiloipurdia jartzen zait.

Balzolako kobazuloraino heltzen gara, baina kostata ezagutu dut parajea. Tokia aldatuta dago, ezingo nuke esan nola edo zergaitik, baina desberdina da, ez dirudi nik ezagutzen dudana leku berbera.

Su txiki bat dago zuloaren sarreran eta manta edo larru batzuk lurrean. Inprobisatutako kanpalekua dela argi dago baina eroso dirudi.

Gelditu eta elkar begiratzen dugu, ni behetik eta bera gainetik. Bihotza arrapaladan eta gorputza bero eta adi, bere begietan dena ikus dezaket. Ez da ez gizakia hurbiltzen dena niregana, baizik eta nire oinak dira aurrea hartzen dutenak, eta nire esku librea da, ixildutako nire adimena aintzat hartu gabe, bere aurpegia ikutzen duena. Bere usainak sudurzuloak indarrez hartzen dizkit eta har eta baso, hosto eta basapizti da.

Nire behatzak bere bizarraren tximetan murgildu dira.

Esku bakarrarekin gerritik hartzen nau eta bere aho gorri ederra nirean zabaltzen da. Gure mingainak dantzan, zurrunbilo bero batean mulgiltzen gara sutan. Elkar jan nahi dugu, hortzekin, mingainekin eta listuarekin. Bere lepo zabalera heltzen naiz bi eskuekin ez erortzeko.

Ez dut pentsatzen, ezin dut, adimena lo, haragia esna, larrua jotzeko prest, erraldoi honekin bat izateko prest.

Esku haundi eta beroek biluzten naute eta eskertzen dut, arropa latz sentitzen bati dut azalaren gainean. Bere arropa ez dirudi berarena eta azkar dago lurrean hau ere, nire pazientzia eta lotsaren azkenengo aztarnak Jentilzubiren azpian geratu dira. Larruak elkartzea, hori da nire helburua, nire senaren beharra. Burua erabiltzeko gaitasuna izango banu, ez naizela inoiz emakume sutsu edo ausarta izan gogoratuko nuke, sexuan ere ez dudala inoiz gehiegi aurrea hartu edo eroso sentitu gogoratuko nuke, baina gaur ez. Gaur ezin dut, ez dut gogoratzen ezer, eta nire pentsamendu logikoak, nire adimenean sortzen den erreka lasai eta isil baten ura dira, gaur izan besterik ezin dut egin.

Bere gorputza haundia eta iletsua da. Bere bularra eta sorbaldak laztandu aurretik ere, bere beroa nire eskuetako azalean senti dezaket. Bere ile guztiek disdira berde bat daukate eta ukitzean udaberriko belarraren leuntasuna nabari dut. Bere anatomia osoarekin igurzten dut nire burua, bere usainarekin nire usaina margotuz. Bere giharrak, bere azalaren azpitan mugitzen senti ditzaket. Nire titiburuek bere sabelaren goikaldearen kontra marruzkatzen dira, eta bere gogortasunak nire sabelaren kontra hezetasun arrasto bat uzten du nire zilborreraino. Ni ere, nire hezetasunaren jabe naiz, eta nire aluak transmititzen dizkidan plazer olatuek nire burmuinaren kontra jotzen dute behin eta berriro, nire arnasa areagotzen delarik itsaso horren aparrean ez itotzeko.

Basoko jaun honen aurrean belaunikatzen naiz, bere gotortasuna begi aurrean, ahoaren aurrean, nire mingaina bere eztoa txupatuz, aseezina ahora sartzen dut. Nire ahoa guztiz betetzen du, eta irentsi ondoren nire mingainak bere perretxiko formako burua dastatzen dario. Eskuetan dauzkat bere barrabilak, haundiak eta beroak. Listua erortzen da nire kokotsetik eta trantzean banengo moduan dastatzen dut.

lletik tira eta bultzatzen nau. Elkarrekin lurreratzen gara eta nire gainean bahetzen da boteretsu, izugarria, bere begi berde basatiekin. Nire aldakak aurrera eta atzera mugitzen ditut katu oharatsu baten moduan, nire buruaren paretak autsirik, libre, nire sena garbienari jarraituz.

Bere eskuek nire aurpegia laztantzen dute, eta nire bularretaraino jeisten dira. Titiburuak zimikatzen dizkit sudurra nire besopean sartzen duen bitartean, gogoz usaituz eta izerdia mihazkatuz. Bere usaina hartu nahi dut nik ere, eta berdina egiten dut. Bere besapean bere arrastoa indartsua da, eta bere gizon-gizaki usaina nire garunera iristen da, eta nire garunaren erantzuna primitiboa da eta nire izaeraren oinarritzko aginduak igortzen dizkit.

Magikoki indarberrituta bultzatzen dut, eta mugimendu arin bakar batean lurrean dago niri gora begira. Bere gainean eseri naiz eta berari gustatzen zaiola argi dago, bere zakil haundia bizkarraren kontra sentitzen dut eta nire aurrean bere azal ederra nire eskuen azpian. Ahaltsua naiz eta nik ere egiten dut irribarre. Bere gorputzaren kontra igurzten naiz berriro ere, bere bi esku zabalekin ipurdia heltzen didan bitartean. Esku bat nire hanken artera dijoa bere zakil handipuztua nire erdigune bustira gidatuz. Bere herensugeak iztarren artean nire kobazuloan barneratzen da bere bidea eginez. Desioa, plazerra eta mina nahasten zaizkit, bizirik eta egiazkoa sentiaraziz.

Itsasaldi bat bagina mugitzen gara, aurrera eta atzera, begiak zabalik, mingainak dastatuz, barruak elkartuz. Abiadura haundituz dijoa, eta laister belarrean jirabiraka, hostoen gainean, tarteka menperatzen dugu elkar, gure sexuen lotura eutsiezinik.

Izerdia bizkarrezurretik behera datorkit. Tanta bat nire bularren tartetik zilborreraion egiten du bidea. Bera belauniko eta ni bere gainean eserita bere zakila inoiz baino barrurago sentitzen dut. Larrua jotzen dugu horretarako jaio bagina legez.

Orgasmoa somatzen dut, geldiezin, tsunami ero baten moduan bere olatu erraldoian murgiltzen naiz. Bera ere eramaten du urak, eta nire kontra izkutatzen du aurpegia eta arnasa. Azkarrago mugitzen gara eta nire barruan isuriko dela jakiteak nire plazerraren gailurrera narama.

Gauari aiuri egiten diot bere hortzak nire azala apurtzen dutenean, eta bere hazi beroa nire barruak betetzen ditu.

Lurraren gainean erortzen gara, oraindik ere lotuak, eta Ekaineko izarrak ikus ditzaket.

Bere semena nire aluan eta umetokian nabaritzen dut, bai eta nire bihotzaren taupadak ere. Lehengo taupadak, lo zeuden bideetaik, zeozer berria darama nire bentrakuluetaraino. Bigarren taupadak nire zelula guztietara hedatzen du zera berri hori, eta berriz ere garrazi egiten dut. Oraingoan jaioberri baten oihua da, begiak zabaltzen ditudanean mundu berri batera heldu naizelako.

Basoa nire inguran eraldatzen da, koloreak argiagoak, airea gardena. Lurraren dardar bizia nonahi.

Odol berri berdeago bat nire zainetatik irristatzen da eta nire taupada lurrarekin bat dator. Konektatuta eta lasai sentitzen naiz. Biluzik, basoko jaunari besarkatuta barre egiten dut altu, eta nire barreak koloreak hedatzen ditu airean.

---

Goiz berri batek argitu du eta beso iletsu eta indartsuek biltzen naute. Azazkal berdeetako esku haundi batek nire titi bat preso dauka.

- Bakarrik zaude hemen?
- Ez geala, ba geala, hamalau mila hemen geala sasi guztien gainetik, laino guztien azpitik. Eta orain, zu ere bazara.